


BATASUN NAZIONALA: ERABAKIAK



LOKUMENTAZIO
ZENTROA
T8T10050



Lesaka, 25 – Maiatza – 1985

ETORRITAKOAK.-

ARABA	- 10	»	- 6	»	»	»
BIZKAIA	- 24	»	- 13	»	»	»
GIPUZKOA	- 19	»	- 13	»	»	»
NAFARROA	- 20	»	- 13	»	»	»
GUZTIRA	73	»	45	»	»	»

SARRERA

Boletin honek Batasun nazionaleko bi gai nagusietaz hartu ziren erabakiak jasotzen ditu soilik; hau da:

- LABen ESKUARMEN ILDOAK
- IDAZKARITZA NAZIONALAREN DINAMIZAZIOA

B.N. honetan aztertu ziren beste gaiak (abagadune azterketa, Seguritate Sozialaren erreforma), eztabaida ordurako zegozkien orientabideak beteta zeudela kontutan izanik, ez dira erabakitzat hartzen, eta dagokien aktan argitaratu dira.

LAB-en ESKUARMEN-ILDOAK

Idazkaritza Nazionalak agertu duen ponentzia, Bloquearen barruan ebatzi ondoren, aho batez onartzen da.

Bere edukiak bideratuko du sindikatuaren eta, batez ere, bere esturturen eskuharmen politika-sindikala.

ONARTURIKO PONENTZIA

ETORKIZUN HURBILARI BEGIRA

Gure lana nondik nora joan behar duen eta era honetako funtsezko gaiak behin baino gehiagotan aztertu ditugu. Horregatik, zaila da gure eskuhartze orokorrerako ikuspegi berriak sortzea, LABeko militanteak aspertuko dituzten ideia errepikatuak bota gabe, eta errepikatuak izateagatik seguraski irakurri barik geldituko direnak. Teori elementuak gehiegi sartu gabe, saturapena gerta ez dadin, ardatz nagusien sintesia egiten saiatuko gara. Aldi berean, gaurko errealitateak planteatzen dizkigun arlo berriak sakondu eta gure lan sindikalaren aspektu praktikoak mamituko ditugu.

KRISISA ETA BIRMOLDAKETAZ

Gure taldearen proiektu orokorra eraldakuntza sozial bati zuzendua dagoela kontutan izanik, LABek erabateko oposizioa mantentzen du Industri Birmoldaketa proiektu guztien aurrean.

Industri birmoldaketa, sistema ekonomikoa orokorki aldarazteko proiektu baten fase bat da. Plan horretan beste hainbat aspektu ere badago: sektore publikoak beteko duen zeregin berria eta Estatuaren eskuartzea ekonomian, finantzia-sistemaren erreforma, lan-harremanetarako esparruaren mugaketa, Seguritate Soziala eraldatzeko proiektuak, lan-merkatua, zerga-sistema.

LANGILE MUGIMENDUAREN SISTEMA

Hiru ardatzeko defini dezakegu:

- a) Errefluxo orokorra, berarekiko klase-kontzientzia ezagatik.
- b) Sindikalismoaren gehiengoaren erreformismoaren eskutik ibiltzea. Patronala eta Estatuaren helburuekin aspektu estrukturaletan bat datorrenez, bere praktika indartuta aurkitzen da.

Sindikalismo erreformistaren aldetik oso joera landua da Estatuaren aparatuan sostengatzea. Hain da horrela, non bere praktika eta Administaritzak berak daramana nahastu egiten diren.

- c) Askapen Nazionalerako Mugimenduan (A.N.M.) oinarritzen dira langile sektoreekin lotuta dagoen lekune politiko-sindikala LAB da gehiengo batez —ez bere osotasunean— lekune hori betetzen duen aukera antolatua.

ERREFORMAREN HASIERAN (1977) KOKATZEN DIREN ZENBAIT ASPEKTU

Esan dugunez, sindikalismo erreformistak ez du berezko nortasunik, orokorki aztertuko leikeen aukera politikorik gabe bait dago; ez dauka ez da ere, eraldakuntza sozialerako proiektu bat. Guzti honegatik, erreferentziarik gabe aurkitzen da bere pausoak orientatzeko eta estatuaren aparatuarekin batera ibiltzeko duen joera gero eta sendoago agertzen da.

Gaurko arautegiak erabat loturik duen esparru sozio laboral bat determinatzen du joera horrek. Baita ere, ondoko ezaugarriak dituen praktika sindikala sortertzatzen du:

- 1.— Frustrazio giroa sortzenda, sindikalismo burokratizatua bultzatuz, eta klaseak berak bere burua antolatzeko dituen sistemak (ASANBLADA) hausten ditu.
- 2.— L.M. zatituta egonda —fabricaren barruan— ezin du birmoldaketaz eta laboral mailan Oligarkiak, estatuaren aparatuak eta erreformismoak markatzen dituzten neurriei buelta eman. Bere kontzientzia-maila eta abangoardiak eskaintzen dituen opzioen mugak mesfidantzara eramaten dute L.M. Mesfidantza ez benetazko ezkertiarren alternatibetan, hauek aurrera ateratzeko ahalmenean baizik. Erabateko desorientazioa sortertzatzen du, bakoitzak berea soilik ikusten duelarik eta lankidetasuna galduz. Birmoldaketaren neurrien gogortasuna da kontrako borrokak berpizten dituen.
- 3.— Sindikalismo honek afiliazioa gutxiagotzen du eta, era berean, langile mugimenduan benetazko eragin-maila mantentzeko kapazitatea ere bai. Administaritzaren laguntza instituzionala eta finantzieroa behar du. Hiru bide daude horretarako.

- a) Negoziatzeko ahalmena (amore ematekoa, hobe esanda) bai patronalarekin, bai administratitzarekin; L.M.aren errefluxua dela eta errespetatzen diren paktuak sinatuz.
- b) Laguntza zuzena eta ez zuzena, diruz edota patrimonio historikoa eta metatua itzuliz.
- c) Patonalaren onespena fabrika barruan, negoziaketak eta hauteskundeetan laguntza emanez esku zabalki.

Honen ordainez erreformismoak irudi demokratikoa eskaintzen du, ordezkariaren eginkizuna bereganatuz.

Arautegi laboralak —hauteskunde sindikalak, errepresentatibitatearen legitimazioa (L.E., L.O.L.S.)— langileari eta opzio kontsekuenteei galerazi besterik ez die egiten beraien arazoak konpondu nahi dituztenean. Gainera, legeria laborala patronalaren interesen arauera moldatzen da, momentu bakoitzean sistemak jasaten duen krisis estrukturalari egokituz.

E.E.E.n sartzeko proiektuak —Japon eta E.E.B.B.ekin batera (azken honen hegemonia mantenduz) mundu kapitalistaren dominazio politiko-ekonomikoaren hirukia osatzen dutelarik— buru belarri eramaten gaitu «lanaren banaketa berriak» sortera ziur duen konpartimentazio ofizialera. Konkretuki, Euskadiko ekonomian ardatz eta ezaugarri izan den industrigintzak garrantzia txikiagoa izango du, ezkutuzko ekonomia goraka joango da eta zerbitzuen sektoreak ere zabaltze bat biziko du.

Lan-ordenamendurako hartzen ari diren neurriak eta produkzio-sisteman gertatzen ari diren aldarazpen estrukturalak, epe ertainera, L.M. zatitu bateruntz eramango gaituzte. Zatiketa horretan sindikalismo konbentzionalak aldatu beharko ditu bere jokaerak. Langile-populazio industrialaren jaitziera, plantilako portzentaia handi bat behartuta «ebentual» erako kontratua egitera, zerbitzueta-ko langilegoa proportzio berean igoko da eta langabetuen kopurua altu mantentzea izango dira aurrerantzean ohizko joerak.

Begi bistan dago aipaturiko aspektu horiek gauzatuz gero gure lan sindikala bermoldatu egin beharko dugula, sortu berri den esparru horren arauera.

LABen LAN SINDIKALA

Atal hau planteatzeko LABen jatorriari heldu behar diogu eta zein eginkizun konkretua betetzeko jai zen. Ez momentuko gorabeherak ezta momentuko giroak ere, ezin dute aldarazi LABen aktibitate sozio-politikoak A.N.M.arenikiko duen lotura. Gure eskuhartzean erabakitzen den edozein moldaketak oso garbi eduki behar du premisa hau.

Krisisaren aurrean hiru abiapuntu ditugu:

- a) Eraldakuntza sozialerako proiektua duen Bloke baten barruan gaudela. Errebindikazio nazionalaren inguruan mamitzen da proiektu hori, alternatiba taktiko bezala haustura demokratikoa mantenduz eta burutu ahal izateko behar ditugun bide guztiak bilduz.
- b) Krisiaren azterketa.
- c) L.M.aren egoeraren azterketa.

Hiru elementu hauek zehazten digute gure eskuhartzearen bidea: aurrenekoa jakina eta onartua da; beste biak lantxo honetan azaltzen dira laburki.

Mugimendu orokor baten barruan egonik, ez zaigu ahaztu behar aurrerapena homogeneoki eman behar dugunik.

Ez da planteatzen sektore baten aurrerapen azkarra eta iraunkorra, gainontze-koak sentidu beretik ez badira abiatzen. Bizitzen ari garen aldi honetan gure jarrerak krisisaren aurrean sendoa eta kontzesiorik gabea izan behar du.

L.M.aren egoera ikusita gure eragina mantentzeko eta areagotzeko, garbi dago lekune politiko-sindikal bakarra dugula. Projektuaren gogortasunak, erakunde bezala, berbiltze egoeran jartzen gaituela. Gure eragina uhin zentrukide modura zabaldu behar dugu; baina orain erdigunea indartzen ahalegindu behar gara batez ere. Gure oinarritzko printzipiotan kontsekuenteki ihardunez eta gauza konkretu eta berezietan lan sindikal koherente eta egokia burutuz, orduan irekiko dira gure hazteko posibilitateak.

NOLA HAZI ETA ZEREZ BALIATU

Gure hazkundera, koherentzian eta kantitatean, gertatu ahal izateko, behar diren elementu objetiboak badirela guztiz seguru gaude. Kantitatean neurri mugatu batean bada ere, eragin-maila garrantzitsua lortzeko moduan egongo gara.

Bitartekoak bide hauetatik joango dira:

- a) Gure eritzien eduki sozio-politikoa A.N.M.ari inguratzeko baliogarri izan behar zaigu. Beharrezkoa da hau halaxe izatea, baina aldi berean zein eratarata eta metodoek gareneko fasearekin bat etorri behar dute, eta konektatzen dugun erakundearen berezitasunekin (egitura, proiektio politiko) ere bai. Izan ere, Herri Batasunarekiko gerturatze prozesua eta lankidetzaren barrendik sortu beharra dago, L.M.aren barruan haren proiektioa erraztuz eta gure agerigarri den plataforma horren interes politikoei lehenetasuna emanaz. Alegia, asuntua ez da HBri gure alternatibak onar ezaztea, edota HB-LAB bikote bezala jendearen aurrean agertzea. Datuak eskaini, parte hartzen dugun borroken azterketa konkretuak eskaini; haxe beharko litzateke harremana, ondoren HB-k balora ditzan, politikoki erabiltzeko baliozkoak diren ala ez. Aldez aurretik ez da planteatu behar HB eta LABen alternatibak bat izan behar dutenik. Noski, ez dira kontrajarririk izan behar, baina horrek ez du esan nahi berdinak behar dutenik.
- b) Daukagun egituraketa —koadroak eta masak— sendotu behar dugu. LABeko koadroak K.A.S. dira, suposatzen duen guztiarekin: partizipazioa, informazioa, eta disziplina militantea. Adieraz buru hau praktikan gauzatu beharra dago, eta hortan oinarrituta LAB altxa eta zabaldu. A.N.S.E.M.aren barruan K.A.S. erakundeak «ardatz eta oinarri» bezala definitzen dela onarturik, Bloke eran osatzen gara ezaugarri hauekin: Iraunkortasuna, erakundearen arteko Nortasuna, klase eta nazio-koherentzia. Borroka mota guztien beltoki izateko erakuntza hartuko dugu, inor inoren menpean egon gabe kide guztien arteko harremanetan konfidantza iraultzailea oinarri delarik. Lantokien markoan sektorearen zuzendaritza eramateko konpromezua hartzen dugu eta gure lan hori Blokeari eskaini.

Bereziki, K.A.S. lokalaren osaketa bultzatzea da berehara burutu behar dugun lan bat. Horretarako, sindikatuaren esturkturatik gure koadrotan dauden mili-

tanteak hezi eta lagundu behar dira K.A.S. militantziaren erresponzabilitatea har dezaten.

- c) Fase honetan LABek sindikato izaera hartzen du. Sindikal arazoei zuzenki lotuta dauden ekintzetan parte hartzen den eran, Blokearen orientabide politikoetan oinarrituta, eragin-mailak zabal daitezke. Fabrika giroan arazo konkretuak zezentzen eta orientabideak ematera behartuta daude. Beraz, ezinbestekoa zaigu sindikal arazoetan ondo jantzita dagoen militantzia edukitzea. Nahi eta nahi ez sartu beharra daukagu —honez gero sarturik gaude— mundu laboral honetan, bere konplexitatea eta guztiz, eta hainbat arazo teknikori irtenbide sindikala eman, batzuk konparezinak bada dira ere. Hau da, sindikalismoa egin behar dugu, iraultzailea, baina sindikalismoa. Ohitura edo joera bat badago gaurko sindikalismoan: koadro teknikoetan oinarritzea; hori gerta ez dadin, baina beren beharra kontutan harturik, Abokatuak eta Ekonomilariak hala beharrez LABeko militantzian izatea beharrezkoa deritzogu.
- d) Gure esperientziak adierazten digu garbi asko zein bidetatik parte hartzen dugun gatazka laboraletan: komiteko delegatuak. Gure ustez, hau halaxe da inongo dudarik gabe. Komitean ordezkariak ez genuen lantokietan, zenbait salbuespen ezik, gure presentzia hutsa izan da edo gehienez testimoniala. LABen izenean hantagai bezala aurkezten garen momentutik interesgarri iruditu zaigulako da, eta interes horri etekin handiagoa atera dakioko aparatuen laguntzaz. Beraz, ez da harrizkoa gure aktibitatea neurri handi batean komite horietan oinarrituta egotea. Burokrazia instituzionalari langileen ordezkariak, delegatuen sistema alegia, indartzea interesatzen zaio; horregatik indar sindikala hautatu diren delegatuen kopturaren arauera neurtzen du. Guzti honek laguntza ekonomiko bat dakar eta partizipazio-mailetara iristea ere bai, horrela sindikatua indartzen delarik. Ez dugu esan nahi: «zenbat delegatu, hainbat indar» esaera guretzat balio duenik; baina: «zenbat eta delegatu kualifikatu gehiago izan hainbat eta indar handiagoz lagun dezakezu prozesuan» esaera, bai uste dugula errealitate bat dela.

Azkenik, orain arte teorizatu ditugun eskuhartze bideen antzekoak proposatzen ditugu, praktikan hobeagotuta sindikal mailan seriozki eta profesionalki parte hartuz, eta paraleloki heziketa politikoa eta K.A.S. militantziaren konpromisua eramanda. Langile Mugimenduaren barruan parte hartzeko interbentzio sindikalaren filosofia orokor hau ez da hertsiki eta dogmatikoki hartu behar den eskema. Kasu KONKRETUETAN Errebindikazio Ekintzetarako Batzorde Nazionalaren bidez lanerako modu bereziak erabaki daitezke.

Sindikalismo mota honen aurrean dugun portaera, Estatu zentralistarekin daukagun borrokaren parte bat da, fase berari dagokio. Ez dira aldatu ez alternatibak ez borroka metodoak. Formari dagokionez, abagadune bakoitzean benetazko posibilitateak neurtu eta horren arauera moldatu egiten da. Projektu politiko orokor baten aldekoak garenez, beraren beharrak kontutan izanik prest gaude krisisarekiko planteatzen ditugun alternatiba konkretuak aldarazteko.



IDAZKARITZA NAZIONALAREN DINAMIZAZIOA

Idazkaritza Nazionalak aurkeztu zuen ponentzia Batasun Nazionalaren aldetik onartua izan zen, aldi berean Bizkaia Herrialdeko Konferentziak eta Aiala aldeko eskualdeak aurkeztu zituzten gehigarriko bi proposamen botatuak izan ziren.

ONARTU ZEN PONENTZIA:

IDAZKARITZA NAZIONALAREN DINAMIZAZIOA ETA SINDIKATOAREN ESTRUKTURAKETA

Azkenengo Batasun Nazionalan, eztabaida sortu zen herrialde eta eskualde-
etako egiturek ezagutu gabe zeukaten Idazkari Nazionalak zuen funtzionamen-
tuaren balantze bat egin zenean. Eztabaida hark sakontasun aundiago bat behar
zuela ikusiz, bere norabidearen betebeharra 1985-eko Urtarrilean egingo zen
Batasun Nazionalerako utzi zen, naiz eta neurri honek «atzerapen» bat ekarri.
Bertan hartu zen erabaki bakarra Iraultzenekin batera Nazional mailarako Propa-
gandaren Arduraduna aukeratu zedila izan zelarik zen.

Sindikatoaren bidari buruz Idazkaritza Nazionalan sortutako ezin konponke-
taren aurrean, eztabaidatu ondoren, funtsean Blokearen barruan erabakia izan
da.

Asko idatzi eta itzegin dugu sindikatoa eta I. N-ren funtzionamentuaren aka-
tsetaz: ideologi mailan noiz-behinkako debatearen beharraz, LAB-ek Blokeari
egiten dion emaitzaren exkaxkeriaz, estrukturetan KAS-en aldetik bizipen eta
partaidetasun exkaxaz, politiko-sindikar interbentzioetan dagoen kontrol ezaz,
barne ezkontzaren exkaxkeriaz, Iraultzeni euxteko inkapazitateaz, diru arazo eta
diruzaintzaren informe gutxiaz, juridiko kontseilaritzan norabide homoginorik
ezaz, Prentsa eta politika internazionalan dagoen anarkiaz, KAS-lokalean LAB-
ek duen urritasunaz..., dena barne egituraren eboluzio gutxi eta ezberdinek kon-
dizionatua.

Akats hauek lehenetsun eta erritmo egoki bat zehaztu gabe gizon eta diruz
bakarrik osatzea, LAB organizatuz fronte homogene bat aurreratzeko izan beha-
rean, teori-idealismo marketing batetan erortzea izango litzateke.

Hurreko balorazioa kontutan arturik, Idazkaritza Nazionala buru delarik, sin-
dikatoa egituraren proiektuan zeregina duten bi faktore azaltzen zaizkigu.

1.- Teori mailan soluzionatua izan den azkenengo hilabeteetan sindikatoan
sortu den polemikak, praktikotasunean BENETAKO HOMOGENIZAZIOA izateko
sedimentazio baten beharra du. Nola nahiko subjektibismoek eta herrialdeetan
sindikatoa finkatzeko era ezberdinak, nahiz eta zenbait arazo-Lan-arauetan
ezberdintasunak egon, zintzotasun eta apaltasun praktiko-iraultzaile batekin BA-
KARRIK bideratu litezke.

Kontsideratzen dugu gure lurraldeetako interbentzioetan, DENOK neurri honetan ahalegindu behar garela, zeren lehenik teori-praktika aldetik BENETAKO HOMOGENIZAZIORIK ez badago, LAB bezalako organizazio batentzat alperrik dira eragintza azkartuko duten instrumentoak koordinadore Nazionalak, Idazkari Orokorrak... eta abar jartzea.

Norbaitek pentsa lezake hurreko Batasun nazionalarekin zerikusirik ez duela jokabide honek, baina guretzat aurrerantzean sortu behar diren Lan-proiektuetarako MUGATZAILEA dela iruditzen zaigu.

2.- Giza neurriak: herrialdeetako estrukturen aultasunean dago Idazkaritza Nazionalak nazional mailan lanik ez egiteko oztoporik nabarmenena. Idazkaritza Nazionala osatzen dutenek, herrialdeetako estrukturetan dauden utsuneak betetzen igarotzen dute denborarik gehiena. Garbi dago I. N-ri eman behar zaion laguntza ASKO IGO BEHAR DUELA, baina gaur egun (Lehengoa gogoan artuz) oso zail egiten da errialdeetako lanak utzi eta nazional mailan 1 edo 2 liberatu jartzea.

Beraz, ditugun akats eta utsegiteak garbi azaldu eta ezagutu ondoren, lan planteamentu hau egiten dugu:

IDAZKARITZA NAZIONALAREN DIZIPLINA FUNTZIONAMENDU ETA ES-KAINTZA

1.- I.N. eta beheko estrukturetako (herrialde, eskualde) partaideek, LEHENTASUN ARDURA sindikatoarentzat izango dute, gaur egun organizazio estrukturek duten xurgapena autsiz.

2.- I.N.-ren emankizuna, hamabostean behingo asistentzi diziplinazko bileren bidez izango da.

3.- Sindikato garenez eta Blokearen organizaziorako, I.N.-ren barne funtzionamenduari (gai zerrenda, aktak... eta abarren bidez) benetako tratamendu bat emango zaio.

4.- Arabak I.N.-an egongo den Herrialdeetako koordinadorea aurkeztu beharko du.

5.- Praktika-ideologiko baten aurrerakadarako Batasun Nazionala eta Herrialdeetako konferentziak gehiago erabili behar dira; orientatiboki urtean hiru Batasun Nazional gutxienik egitea proposatzen dugularik.

Neurri honetan, gaien garapena lortzeko jarriko diren arduraduna izango litzateke:

EPE MOTZERAKO PRAKTIKO-IDEOLOGI ORIENTAZIOA

1.- Kooperatiba eta S.A.L.-ei buruz, debatearen bidez, zebide jarraitu behar dugun erabaki; honetaz datorren 5-10-85-erako Batasun Nazional bat jarriko genduke.

2.- Estatu Espainola CEE-n sartzeak ekar lezaken ondorioa sakontzeko, sindikatoan kontzientziakuntza eta ulerkuntza bultzatu.

3.- Seguritate Sozialaren Erreformari buruz kanpaina sendo baten eragina estudiatu.

4.- Bloquearen barruan dauden gainontzeko organizazioekin batere koiunturalki eman behar zaien erantzunak antolatzen direnean babestu.

5.- Organizazioak dituen estruktura guziak indartzen ahalegindu, politiko-sindikal mailan KAS-eko militanteak behar duen informazio, debate, K-lokalaren potentziazio... eta abarretan lan egingo duten koadroak sortu.

6.- 1986-ko hauteskunde sindikalak garantia guziarekin oldartzeko, estruktura mailan guzietan lan inizatibak eratu.

LEHENTASUNEZKO KOMISIO LANAK

I.N.-ren barruko komisio lanek (herrialdeetakoak ere berdin), ere honetan zati-turik egongo liratezke:

DIRUZAINZA: Herrialdeko arduradunekin batera egin beharreko lana (Nazioalki biltzen den diruaren kontrola, txostenen erregularkuntza, kuoten kobratzea...) izango da.

FORMAZIOA: Aktibitate ona egiten ari den Komisioa sendotzeko, Eskualdeetako arduradunak konsolidatuz funtzionamendua lotu.

ERREIBINDIKAZIOEN ERAGINA: Probintziaren gainetik dauden gatzekien politiko-sindikal orientazioen koordinaketa, herrialde eta eskualdeetako erreibindikazio estrukturak lantegietako gatzekien kontrol funtzionamenduaren konsolidazioa, formazioarako sindikal ikastaroen eraketa, asesori juridikoen berdintasuna, gaurko teknikoaren maila obetuko duen koordinaketa.

PROPAGANDA: Iraultzen osatuz atera eta bere jarraipen bat egin herrialdeko arduraduna sendotuz.

BESTE EGINKIZUN BETE BEHAR DIZIPLINAZKOAK

PRENTSA: LAB-en aldetik komunikabideei koiunturalki eman behar zaien erantzunaren ardura Herrialdeko Koordinadoreek izango dute, maila nazional mailetarako elkarren artean behar dituzten neurriak jarritz.

ARREMAN INTERNAZIONALAK: Organizazio mailan politiko-sindikal arrematarako norbait egotea ezinezko denez, I.N.-an lehenik azertu beharra ikusten da, eta aldi berean beste organizazioetatik jasotzen den dokumentazioa kuadruplikatu ondoren herrialde bakoitzean herrialdeko koordinadoreen bidez laburtua izango da.

Hemen jartzen diren neurri-multzo zehatz hauen helburua hau izango litzateke:

- Sindikatoaren estrukturak homogenizatu eta sendotu.
- Debatearen bidez ideologi-praktikaren bidean aurrera egin.
- LAB-ek Blokeari gehiago lagundu.
- Dauden utsune garrantzikoak bideratu eta aparatoa mugituz dinamizatu.

Berriro asten dugun organizazio etapa berri honen emaitzak ikusi ondoren, neurri andiagoak (Liberatu Nazionala, Koordinadore Nazionala...) aztertuko gehituzke.

ONARTU ZEN PROPOSAMENA

Aiala aldeko eskualdeak planteiatzen du; Idazkaritza Nazionalak Lan-banaketa eta arduraketaren estudioa egin dezala urrenge B.N.-lerako, bertan sakonduz sindikatoarentzat Idazkaritza nazionalaren teori-praktikotasunaren neurria nolakoa izan behar duen. Neurri hoiek gaurko Idazkaritza Nazionalaren konposaketa GEHITZEKO, KENTZEKO, LIBERATU GEHIAGO izateko... izan litezke.

Ondorengo botazio honen bidez proposamen hau onartua izan zen:

BAI	20 boto
EZ	10 boto
ABSTENTZIOAK.....	15 boto
GUZIRA.....	45 boto

BAZTERTUTAKO PROPOSAMENA

Bizkaia Herrialdeko konferentziaren aldetik berriz, Idazkaritza Nazionalak aurkeztu zuen ponentziaren barruko estrukturaren funtzionamenduan organizaziorako komisio bat osatu zedila eskatzen zuen.

Ondorengo botazio honen bidez proposamen hau baztertua izan zen:

BAI	16 boto
EZ	18 boto
ABSTENTZIOAK.....	11 boto
GUZIRA.....	45 boto

Batasun Nazional hau, kooperatiba eta SAL-ei buruz LAB-en orientazio ideologi-praktikoan zentratuz Urrian egingo de Batasun Nazionalaren erabakiarekin amaitu zen.

